# Zarauzko Emakume eta Gizonen IV. Parekidetasun Plana

2023-2027

ZARAUZKO UDALA
PAREKIDETASUN DEPARTAMENTUA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

**BABESLEA:**

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

**LAGUNTZA TEKNIKOA:**

DAITEKE

**DAITEKE GIZARTE AHOLKULARITZA**
URDANETA KALEA, 18, DONOSTIA.
**www.daiteke.eus**

# AURKIBIDEA


**1. SARRERA** 4

**2. ARAUDI MARKOA** 6

**3. PLANAREN INDARRALDIA** 9

**4. LAN PROZEDURA** 10

**5. ZARAUZKO III. EMAKUME ETA GIZONEN PAREKIDETASUN PLANAREN EBALUAZIOAREN ONDORIO NAGUSIAK** 12

**6. PLANAREN EGITURA** 17

*6.1. HELBURU ESTRATEGIKO ETA OPERATIBOAK* 18

**7. EKINTZA-PLANA** 23

**8. KUDEAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK** 46

*8.1. EBALUAZIO ETA JARRAIPEN SISTEMAK* 50

*8.1.1. INPAKTUA ADIERAZLEAK* 51

# 1. SARRERA

Zarauzko Udalak ibilbide luzea du berdintasun politiken garapenean, izan ere, ekimen eta proiektu ugari sortu dira lanketa horren baitan azken urteotan: Emakumeen* Etxea sortzea, Jabetze Eskola indartzea, herriko ikastetxe guztiekin elkarlanean aritzea, berdintasuna sustatzeko eta indarkeria matxistaprebenitzeko hezkuntza programak finkatzea, kanpaina eta ekitaldi puntualen indarra areagotzea edota emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal ordenantza onartzea. Asko aurreratu badugu ere, aurrera pausuak ematen jarraitu beharra daukagu benetako berdintasunerantz.

Udalak konpromiso sendoa du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bizitzaren esparru eta etapa guztietan bermatuko duen erakunde-kultura bultzatzeko. Bizi garen eredu patriarkal, androzentriko eta sexista atzean utziko duen berdintasunezko jendarte baterantz aurrera egiteko ahaleginak egin behar dira, ez bakarrik herritarren arteko berdintasuna sustatuz, baita barne-mailan ere, udal-antolamendua bera eredu bihurtuz.

Esparru horretan, hain zuzen, txertatzen da dokumentu honetan aurkezten dugun Zarauzko Udaleko Emakumeen eta Gizonen Parekidetasunerako IV. Plana, aurreko Planei jarraipena ematen diena.

Plan honi esker, indarkeria matxistaren prebentzio eta esku-hartzean, emakumeen ahalduntze prozesuetan, ikuspegi intersekzionalaren aplikazioan edoemakumeen aitortza prozesuetan aurrera egin ahal izango dugu, bai eta funtsezko beste alderdi batzuetan ere, hala nola, udal langile eta politikarien genero-prestakuntzan, sexu- jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako borrokan edo Udal lan prozeduretan, genero ikuspegia txertatzeko aurrera pausoak ematen.

Helburu horrekin, Planak esku hartzeko ardatz nagusiak identifikatzen ditu, baita datozen urteetan lehentasunezkotzat jotzen diren helburu estrategikoak ere. Esku hartzeko ardatz eta helburu estrategiko horiek antolaketa eta barne zein, kanpo-funtzionamenduko erronkak planteatzen dituzte, baita aldaketa sozio-ekonomikoko erronkak ere.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea; EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana eta Gipuzkoako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana dira Plan honen arau-erreferentzia nagusiak. Erreferentziazko legegintza-esparru gisa ez ezik, helburuak, neurriak eta estrategiak zehazteko metodologia-esparru gisa ere balio izan dute, udalaz gain beste erakunde batzuekin koordinatuta jardun dezagun.

Zarauzko Emakumeen eta Gizonen Parekidetasunerako IV. Plana; Parekidetasun Kontseiluarekin, gaian interesa izan duten pertsona eta elkarteekin, Udal departamentuetako teknikariekin eta politikariekin elkarlanean diseinatu da.

Hauek izango dira Zarauzko IV. Parekidetasun Plana **gidatuko** duten **oinarrizko printzipioak:**

## 01 PARADIGMA FEMINISTA

Feminismoa izango da IV. Planaren printzipio gidaria, pentsamendu feministako lerro eta dimentsio guztiak barne hartuko dituelarik.

## 02 GENERO-MAINSTREAMING

Analisi eta lan metodologia modura, ikuspegi honek agerian jartzen ditu eta, ondorioz, ekiteko moduko bihurtzen ditu generoen arteko desberdintasunak. Genero ikuspegia barneratzeak esan nahi du Plan honetan emakumeen kontrako diskriminazioaren aurka eta giza garapen jasangarriaren alde kokatzen den agenda eraikitzea bilatuko dela.

## 03 EMAKUMEAK AHALDUNTZEA

Emakume bakoitzari autonomiaz eta askatasunaz bizitzeko aukera ematen dion prozesu gisa ulerturik, mendekotasunezko botere erlazioei eta erlazio horiek sostengatzen dituzten balioei beste esanahi bat ematea ahalbidetzen du ahalduntzeak.

## 04 IKUSPEGI INTERSEKZIONALA

Ikuspegi intersekzionala barneratzeak, osatzen diren esku-hartze, programa eta sortzen diren instrumentu guztietan genero ikuspegia txertatzea suposatzen du, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna eta diskriminaziorik gabeko baldintzak sortzeko. Hau honela, genero hierarkiatik haratago joan eta zeharkatzen gaituzten eta elkar eragiten duten askotariko diskriminazio eta desberdinkeria-iturriak kontuan hartzea dakar; jatorria, klase soziala, dibertsitate funtzionala, adina, hizkuntza, orientazio sexuala, identitate sexuala, familia-eredua eta bestelako egoera pertsonalak eta sozialak.

## 2. ARAUDI MARKOA

Zarauzko Emakumeen eta Gizonen Parekidetasunerako IV. Planaren oinarri dira azken urteotan nazioarte mailan eta estatu, autonomi erkidego edo udal mailan onartutako testu legalak. Plan honek erreferentziazkoa duen hainbat esparrutako (nazioartekoa, estatukoa, erkidegokoa eta aldundikoa) araudiak hartu ditu erreferentzia eta legezko marko gisa:

### NAZIOARTEKO MAILAN

- Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda, Nazio Batuena (Garapen Jasangarrirako Helburuak) (2015).
- Pekinen egindako Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentzia (1995).

### EUROPA MAILAN

- Europar Batasunaren Genero Berdintasunerako estrategia 2020-2025 aldirako.
- Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzkoa (Istanbuleko Hitzarmena, 2011).

### ESTATU MAILAN

- Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurka oso-osoko Babesa emateko Neurriei buruzkoa, Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa eta Martxoaren 1eko6/2019 Errege Lege Dekretua, enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko presazko neurriei buruzkoa. Gainera, esparru honetan bertan, kontuan hartu behar dira, Foru eta Toki Administrazioei dagokienez, Genero Indarkeriaren aurkako Estatu ItunarenNeurriak (2017).

### AUTONOMIA-ERKIDEGO MAILAN

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.

### FORU MAILAN

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2005 Foru Araua, martxoaren 9koa.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana Gipuzkoan (2020-2023).

### UDAL MAILAN

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal ordenantza (2017).
- Tokiko proiektu estrategikoak.

Dokumentu hau egiterakoan hainbat aipamen nabarmendu behar dira: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarikgabeko bizitzena; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana (2020-2023).

## Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea

Lehen Tituluak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan administrazio-maila bakoitzak dituen eginkizunak definitzen ditu, Autonomia Estatutuaren 10.39 artikuluan, LHLren 6 eta 7 c.2 artikuluetan, Estatutuan (9.2 artikulua) eta Erkidegoko arauetan (Europar Batasunaren Tratatuaren 3.2 artikulua)ezarritako eskumenetatik abiatuta; izan ere, arau horietan ezartzen da botere publikoek gizabanakoaren eta hura barneratzen den taldeen berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izatekobaldintzak sustatzeko betebeharra dutela.

Halaber, erakundeen oinarrizko erakunde-antolaketa eta koordinazio mekanismoak ezartzen ditu, eta legean jasotako neurriak finantzatzeko irizpideak eta finantza-lankidetzarako formula posibleak arautzen ditu.

**«3.artikulua.-Printzipio orokorrak.**

Hauek dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduna gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak:

- Tratu-berdintasuna eta ikuspegi intersekzionalaren integrazioa;
- Aukera-berdintasuna;
- Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea eta desagerraraztea; Aniztasunarekiko eta
- desberdintasunarekiko errespetua;
- Sexu- edota genero-identitatea eta sexu-orientazioa askatasunez garatzeko eskubidea, baita sexu- eta ugalketa-eskubideak ere, pertsonen erabaki askea bermatuz horiek gauzatzeko unean;
- Genero-ikuspegia txertatzea;Ekintza
- positiboa;
- Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea;Ordezkaritza
- orekatua;
- Lankidetza, koordinazioa eta nazioartekotzea;
- Emakumeen ahalduntzea;
- Gizonen inplikazioa;
- Parte-hartzea;
- Berrikuntza, gardentasuna eta kontuak ematea;
- Hizkuntza-eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea.

## EAEko gizon eta emakumeen VII. Berdintasun Plana

EAEn berdintasunaren arloan jarduteko lehentasunak ezartzen ditu 2018-2021 laurtekoan, eta lau ardatzetan egituratzen ditu: gobernu ona, emakumeen ahalduntzea, ekonomiak eta gizarte- antolamendua eraldatzea, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko eskubideak eta bizitzak bermatzea.

Plan horretako jarraibideak eta esku hartzeko ildoak izango dira euskal botere publiko guztien jardueraren ardatz emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan. Ildo horretatik, VII. Planarenedukien egiturari jarraiki diseinatu da Zarauzko Emakumeen eta Gizonen Parekidetasunerako IV. Plana, betiere helburuekin bat datorren esku hartzeko estrategia itxuraturik.

## Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Gipuzkoako Foru Plana (2020-2023)

Lurralde-mailara etorrita, kontuan hartzekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana (2020-2023). Honek, berdintasunean oinarrituagoa den jendartea eraikitzeko eta, ondorioz, jendarte oparoagoa eta kohesionatuagoa lortzeko, etorkizunaren, lehiakortasunaren, berdintasunaren eta lankidetzaren balioetan oinarritutako ikuspegia du. Emakundek EAErako diseinatutako Planaren egitura jarraitzen badu ere, izaera propioa du eta aintzat hartu beharra dago.

**Plana bat dator Gipuzkoako Berdintasunerako Foru Plan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren ildoekin.**

# 3. PLANAREN INDARRALDIA

III. Parekidetasunerako Plana indarrean egon da 2021era arte.

2022. urtean zehar Udal Parekidetasun Departamentutik berdintasunaren aldeko lanketa ezberdinak osatu dira. Dagozkion programak eta proiektuak koordinatu eta kudeatzeaz gain, Zarauzko Emakume eta Gizonen IV. Parekidetasun Plana prestatu da; Planak jarduera- estrategia definitzen du, hau da, Udalak 2023- 2027 aldian, berdintasunaren arloan duen jarduera bideratzeko diseinatutako ibilbide-orria. Planaren indarraldia 5 urtekoa izango da, 2023tik 2027ra, hain zuzen ere.

Plana aurrera eramateko 2023. urtean 353.758€ aurrekontua izatea aurreikusten du Zarauzko Udalak. Aurrekontua % 21 handitzea aurreikusten da (291.206 €-tik 353.748 €-ra).

Hemendik aurrera, urtero zehaztuko da haren aurrekontua Planean proposatzen diren epeak aintzat hartuta. Aurrekontu honek Planeko ekintzak aurrera eramatea ahalbidetuko du.

Urtetik urtera, Parekidetasun Departamentuari bideratutako aurrekontua handituz joan da, lan egiteko baliabide egokiak izateko aukera emanez. Aurrekontu horri eustea eta handitzea aurreikusten da.

Bestalde, Planean bertan jasotzen den bezala, gainontzeko departamentuek dagozkien ekintzak garatu ahal izateko beharrezko aurrekontua aurreikusi beharko dute.






## 4. LAN PROZEDURA

Plana osatzeko erabili den metodologia parte-hartzailea izan da, eta teknika kuantitatibo zein kualitatiboen bidez gauzatu da. Jarduera horien bidez, gainera, herritarrek proiektuan parte hartzea bermatu da eta hori izan da lortu nahi izan den ezaugarri metodologikoetako bat.

IV. Planak zazpi hilabeteko iraupena izan duen berdintasunaren arloko udal politikaren hausnarketa, kontraste eta zehazte-prozesu baten bidez definitu da. III. Parekidetasun Planaren ebaluaziotik abiatuta, egungo egoera aztertu eta interpretatu da, etorkizunerako lan- ardatzak eta erronkak zirriborratu dira eta hauek lortzeko estrategia diseinatu da.

Informazio kualitatiboa biltzeko, lehen mailako iturrietara jo da, sakoneko elkarrizketen eta lan-taldeen bitartez. Hau osatzeko hainbat fasetan egituratutako lan-prozedura jarraitu da.

Lehenengo fasean **banakako elkarrizketak osatu dira Udal Departamentuetako teknikari arduradunekin.** Hauetan, etorkizuneko Plana garatzeko indargune eta zailtasun nagusiak identifikatu dira, eta genero-mainstreaming estrategia ezartzeko eta berdintasun-politikak sustatzeko erronkak nabarmendu dira. Guztira 15 emakumek eta 3 gizonek parte hartu dute fase honetan.

Bigarrenik, **lan saio bat egin da Zarauzko Berdintasun Kontseiluarekin**, bertan 9 emakumek parte hartu dute. Saio honen helburua plana bideratuko duten egitura eta ardatzak proposamen irekian aurkeztea izan da, bai eta planaren helburu estrategikoak eta operatiboak ere, arreta berezia eskainiz ardatz hauetan jasotako helburuei: ahalduntze Feminista, Ekonomia eta gizarte antolakuntza eraldatzea berdintasun lortzeko, eta Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak.

Ondoren, **arduradun politikoekin** aurreko lanketetan osatutako proposamena landu da ekarpenak egin eta zalantzak argitzeko tartea eskainiz. Aurkezpen saio honetara 4 emakume eta gizon 1 gerturatu dira. Era berean, proposamena arduradun politiko guztiei helarazi zaie ekarpenak egiteko epea ezarriz.

Azkenik, politikariekin erabilitako metodologiarekin jarraituz **herritarrei bideratutako aurkezpen saio** osatu da, bertara 13 emakume eta gizon 1 gerturatu direlarik. Edozein herritarrek bere ekarpenak osatzeko aukera ere eskaini da Zarauzko web orrialde, zein Parekidetasun Departamentuko blogean informazioa zintzilikatuz eta ekarpenak egiteko modua zehaztuz.

Behin informazio eta proposamen guztiakaztertuta azken dokumentu bat osatu da. Hau, teknikariei eta politikariei bidali zaie, azken zuzenketen proposamena ahalbidetuz.

Plana osatzerako prozesuan koordinazioa eta ekintza-helburu zehatzen garapenaz arduratu den talde eragilea osatu da. Bertan, Parekidetasun Departamentuko teknikaria, zinegotzia eta Daiteke Gizarte Aholkularitzako lan taldea parte hartu dute.



## 5. ZARAUZKO III. EMAKUME ETA GIZONEN PAREKIDETASUN PLANAREN EBALUAZIOAREN ONDORIO NAGUSIAK

Aurrez aipatu den bezala, IV. Parekidetasun Plana sortzeko abiapuntua izan dira 2021. urtean egindako III. Parekidetasun planaren ebaluazioa eta egoeraren diagnostikoa. Hau honela, lanketa osatzeko kontuan hartu izan diren emaitzen laburpena osatuko da, IV. Parekidetasun Planak oinarri izango dituen lau ardatzen arabera lorpenak eta erronkak identifikatuz.

| GOBERNU ONA | |
|---|---|
| **LORPENAK** | **ERRONKAK** |
| • Betetze-maila egokia izan dela esan daiteke ikusita kuantitatiboki eta kualitatiboki egindako lana eta ekintza ugari izan dituen plana dela. Planean betetze maila %56koa izan da.<br><br>• Udal departamentuek bilakaera positiboa izan dute eta genero ikuspegia gehiago txertatzen dute, hizkuntza eta irudien erabilera ez sexistan, kontratu eta diru-laguntzetan edota ekimenetan.<br><br>• Berdintasun Ordenantza mugarria izan da hizkuntzaren erabilera ez sexista erabiltzeko, eta genero ikuspegia udaleko lanean txertatzeko kontratuetan eta diru-laguntzetan berdintasun klausulak txertatzeko edota datuak sexuz bereizteko. | • Udaleko arlo guztietako langileei berdintasuneko formakuntza espezializatua ematea, genero ikuspegia txertatu eta sendotzera bideratua.<br><br>• Udal politika eta programetan genero ikuspegia sendotzeko beharra nabarmentzen da.<br><br>• Udaletik osatutako baliabideetan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista oraindik hobetzeko arloa dela ikusten da.<br><br>• Sailen arteko koordinazioa hobetzea. Udal sailen arteko koordinazioa lantzea parekidetasun arloarekin.<br><br>• Planaren ebaluaketa tresna erraztu beharra azpimarratu da.<br><br>• Generoa ez da landu aurrekontuetan orain arte.<br><br>• Epaimahai eta partehartzerako gune guztietan emakume eta gizonen parekidetasuna sustatzen jarraitzearen beharra ikusten da.<br><br>• Kontratuetan berdintasun klausulen jarraipena osatzea.<br><br>• Datuak sexuaren arabera biltzen diren arren, erabiltzeko eta ustiatzeko zailtasunak daude. |

| GOBERNU ONA | |
|---|---|
| **LORPENAK** | **ERRONKAK** |
| | • Udal barneko Berdintasun Plana egitea eta sexu jazarpenaren eta sexuagatik jazarpen sexistaren udalaren arreta protokoloa berrikustea eta langileei helaraztea. |
| • Zarautzen legea onartu zenetik emakumeen proportzioa urtez-urte handitzen joan dela antzeman da, eta gaur egun Berdintasunerako Legeak ezartzen dituen zifrekin bat datoz kargu politikoen banaketa-balantzea. | • Orain arte, ordezkari politikoek genero-prestakuntza puntuala baino ez dute jaso. Tradizioz, balioak eta ideiak barneratuta daude, eta komeni da estereotipo eta jarrera horiek identifikatzeko eta alde batera uzteko prestakuntza izatea. |
| • Udalean ekimen ugari eta estrukturalak egin dira II Planarekin alderatuta, besteak beste, berdintasun ordenantza onartu da, Emakumeen* Etxea martxan jarri da, eta berdintasunaren aldeko lan oso garrantzitsua egin da.<br><br>• Berdintasun aurrekontuak igoera handia izan du. | • Parekidetasun departamentutik eginkizun gehiegien ardura hartzeko denbora falta adierazi da. Parekidetasun arloak baliabide gehiago izatea eta sendotzea litzateke beste erronketako bat. |
| • Parekidetasun kontseilutik Plana berdintasuna sustatzeko tresna eta bidea dela adierazi da eta herrian izan duen inpaktua handitzen joan dela ikusten dute. | • Parekidetasun Kontseiluan, herritarrei planaren berri eman behar zaiela eta politikarien inplikazioa handitu behar dela aipatu da. Berdintasuna agenda formaletik agenda "bizi" batera igarotzeko. |

| EMAKUMEEN AHALDUNTZEA | |
|---|---|
| **LORPENAK** | **ERRONKAK** |
| • Emakumeen* Etxea martxan jarri da. Jabetze Eskolaren programazioa areagotu eta emakumeen artean zabaldu da.<br>• Herriko emakume, emakume taldeen eta talde feministen arteko sareak eta elkarlana sustatu da.<br>• Emakume etorkinei zuzendutako zerbitzuak sortu dira. | • Emakumeen* Etxea herrian sendotzea, hurbiltzea eta gehiago ezagutaraztea beharrezkoa dela diote, beste herriekiko lankidetza sustatzeaz gain.<br>• Emakumeen ahalduntze-prozesuak areagotzea.<br>• Feminismoaren inguruko hausnarketa sustatzen jarraitzea.<br>• Herritarrek beste hainbat gai jorratzeko beharra nabarmendu dute: emakumeen osasun mentala, emakumeen bakardadea, digitalizazioa, etabar.<br>• Emakume etorkinei eskainitako arreta lantzen jarraitzea beharrezkoa dela adierazi da. |
| • Parekidetasuna presenteago dago udalean eta udal agendan.<br>• Ekitaldietan parekidetasuna bermatzen saiatzen dira.<br>• Emakumeak ikusarazteko ekintzak egin dira, kaleen izendegiak, esaterako. | • Departamentu guztiek emakumeen partaidetza kualitatibo eta kuantitatiboa bermatzeko neurriak sustatzen jarraitzea.<br>• Emakumeen aitortze eta errekonozimendua esparru guztietan sustatzea.<br>• Emakumeek hainbat esparrutan egindako ekarpenak eta izan duten papera ikusarazteko eta aitortzeko ekimenak martxan jartzea. |

| EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO | |
|---|---|
| **LORPENAK** | **ERRONKAK** |
| • Inmigrazio zerbitzuak hainbat jardunaldi antolatu ditu emakume zaintzaileen egoera ikusaraziz. | • Zaintzaren azterketa egitea Covid 19ak eduki duen inpaktua aztertuz: adineko emakumeengan, indarkeria matxistaren biktimengan, emakume etorkinengan edota ezintasuna duten emakumeengan.<br>• Zaintzari dagokionez, zaintza-lanen banaketaren inguruko hausnarketa sustatzea, gizonak zaintzan inplikatzea eta zaintzarako sarea eta zerbitzuak sustatzea proposatzen da. |
| | • Lurralde antolakuntzaren eta hiri plangintzaren bitartez herri segurua, barneratzailea eta pertsonekiko eta ingurunearekiko atsegina izatea. |
| | • Lan merkatuko datuei erreparatuta Zarautzen emakumeek gizonekin alderatuta langabezia handiagoa dute, okupazioa maila baxuagoa, kontratu mugagabe gutxiago eta jardunaldi partzial gehiago dituzte. Gainera jarduera gabeko emakume gehiago daude eta beraien errenta arraila nabarmena da. Herritarren esanetan beharrekoa da emakumeen lan baldintza eta aurkitu diren arrakalak murrizteko lanketak egiten jarraitzea. |
| • Hezkidetza programa martxan dago. Hezkidetza Foroa sortu da.<br>• Afektibitate- eta sexu-harremanen, ugalketa-harremanen eta genero-nortasunaren askatasun eta aniztasunaren gaineko sentsibilizazioa lantzea sexu-aholkularitza zerbitzuaren bitartez. | • Hezkidetza lantzen jarraitzea beharrezkotzat jotzen da, txikitatik sentsibilizazio eta formakuntza emanez eta hezkuntza komunitate osoa inplikatuz. |
| • Kluben eta elkarteen kontzientzia aldaketa ematen ari da, eta berdintasuna sustatzeko gogoa badago.<br>• Herritarrak emakume eta gizonen berdintasunaren inguruan sentsibilizatzea. | • Herri eragile eta herritarrak berdintasunean sentsibilizatzen jarraitu.<br>• Gizonak inplikatzea berdintasunean. |

| EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK | |
|---|---|
| **LORPENAK** | **ERRONKAK** |
| | • Indarkeria matxistaren aurrean erantzun publikoa emateko gizarte eragileekin protokoloa adostea. |
| • Indarkeria sexistaren eta tratu onen eremuan, udalerriz gaindi dauden ekimen eta programetan parte hartzea (Adb. Beldur Barik programan) | • Sentsibilizazio lanketa berezia egitea gazte, adineko emakume, aniztasun funtzionala, migratu eta LGBTIQA+pertsonen artean.<br>• Sentsibilizazio lanketa berezia egin indarkeria sexistarik gabeko hiria sustatzeko. |
| • Emakumeen* Etxean emakumeei bideratutako aholkularitza psikologikoa eta juridikoa eskaintzen da.<br>• Herritarrei, oro har, eta emakumeei bereziki, indarkeria sexistari aurre egiteko Udalak eta gainerako erakundeek dituzten bitarteko eta baliabideen berri ematen da. | • Indarkeria matxistaren inguruan ezagutza eta sentsibilizazioa handitu eta biktimekiko arreta hobetzea. |
| | • LGBTIQA+ kolektiboa kontutan hartzea eta lanketak desberdinak osatzea. |
| • Gizonezkoek indarkeria sexistaren kontra modu aktiboan parte hartu dezaten sentsibilizazio-jarduerak antolatu dira. | • Indarkeria matxistaren fokua gizonengan jartzeko beharra ere ikusten da. |

# 6. PLANAREN EGITURA

Zarauzko IV. parekidetasun Planak 4 esku-hartze aldatzez osatua dago: 11 helburu estrategiko, 23 helburu operatibo eta 98 ekintza biltzen ditu.

Hauek dira esku-hartze eremu horiek:



### GOBERNU ONA

Emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren txeratzeaz, legitimatzeaz, aitortzeaz eta bultzatzeaz arduratzen da. Horretarako jendarte osorako eredugarria izateaz gainera, ardatz honetan, gobernu jarraibideak, erakunde akordioak, kudeaketa gardenerako prozedurak eta konpromiso politikoa finkatzen dira.



### EMAKUMEAK AHALDUNTZEA

Emakumeen eta neskatilen ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa babestea eta sustatzea. Ahalduntzea betekizun eta berme bat da munduan emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eraldaketa sozialerako. Emakumeen ahalduntzerik gabe, ez dago berdintasunik



### EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO

Beharrezkoa da eragile sozial, politiko eta ekonomiko guztiak inplikatzea, eskubideak bermatzeko eta eredu sozial iraunkorrago eta berdinzaleago bat lortzen laguntzeko.



### EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

Sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzioa, arreta, eta erakundeen arteko koordinazioa. Arreta jartzen da, batetik, prebentzioan, eta, bestetik, bizirik jarraitzen duten biktimei arreta integrala ematean (erabat oneratzen diren arte)

## 6.1. HELBURU ESTRATEGIKO ETA OPERATIBOAK

Hauek dira **gobernu onaren arloko** helburu estrategikoak eta operatiboak:

| |
|---|
| **HE.1.**<br>**Konpromiso politikoa: Parekidetasun arloan erreferentziazko araudiaren garapena sustatzea** |
| HO. 1.1.<br>Udalarentzat parekidetasunaren arloan erreferentziazko araudia berrikustea, eguneratzea eta ezarpenaren jarraipena egitea. |
| HO. 1.2.<br>Parekidetasun departamentua indartzea. |
| **HE.2.**<br>**Lan prozeduretan genero ikuspegia txertatzeko aurrera pausoak egiten jarraitzea: *Mainstreaming*, klausulak, aurrekontuak, inpaktu txostenak, sexu aldagaia.** |
| HO. 2.1.<br>Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundean sexu aldagaia sistematikoki txertatu eta aztertzea, pertsonei zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea. |
| HO. 2.2.<br>Udalaren araudi, plan eta proiektu estrategikoek duten genero-inpaktua neurtzeko prozedura landu eta onartzea. |
| HO. 2.3.<br>Udalak zuzenean egiten dituen, edo hirugarren pertsonen edo entitateen bidez udalarentzat egiten diren, dokumentuetan eta euskarrietan komunikazio ez sexistaren (hizkuntza, irudietan, sinboloetan, etab.) erabilera bermatzea. |
| HO. 2.4.<br>Udalaren kontratuetan, diru laguntzetan eta hitzarmenetan berdintasun klausulak sistematikoki txertatzen jarraitzea, haien gaineko jarraipena egitea eta betetzea maila bermatzea, eraldatzeko duten ahalmena aztertuz (kalitatea eta eragina). |
| HO. 2.5.<br>Udalaren aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea. |

**HE.3.**
**Udala parekidetasunaren ereduzko erakundea.**

HO. 3.1.
Udaleko langileen kudeaketan genero-ikuspegia txertatzeko udalaren barne-plana egin.

**HE.4.**
**Koordinazioa eta elkarlana: Koordinazioa eta lankidetza funtsezko elementua da berdintasuna zeharka landu dadin maila eta arlo guztietan.**

HO. 4.1.
Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea.

Guztira 24 ekintza

**Emakumeen ahalduntzea arloko** helburu estrategikoak eta operatiboak:

| |
|---|
| **HE. 5**<br>**Emakumeen ahalduntze pertsonal eta kolektiborako baliabideak eta zerbitzuak bermatzea.** |
| HO.5.1.<br>Emakumeen* Etxearen proiektua herrian indartu eta egonkortu. |
| HO.5.2.<br>Ikuspegi intersekzionala barneratzea, emakumeen ahalduntzea sustatzearen aldeko estrategian. |
| **HE. 6**<br>**Emakumeen ahalduntze sozial eta politikorako laguntza.** |
| HO.6.1.<br>Ahalduntze sozial eta politikoa sustatzen duten prozesuak sortzea eta sendotzea. |
| HO.6.2.<br>Emakumeen protagonismoa sustatzea kultur ekitaldi eta proposamen guztietan (artistikoak, jai girokoak, oroitzapenezkoak, kirol arlokoak eta euskararen hizkuntzan normalizazioaren esparruan egiten direnak). |

Guztira 33 ekintza

**Ekonomia eta gizarte antolakuntza eraldatzea berdintasuna bermatzeko arloko** helburuestrategikoak eta operatiboak:

| |
|---|
| **HE. 7**<br>**Berdintasuna gizarte eta ekonomia eraldatzea beharrezko balioa dela aitortzea.** |
| HO.7.1.<br>Herritartasun-eskubideen erabilera sustatzea hezkidetzaren bidez. |
| HO.7.2.<br>Gizonekin erantzunkidetasuna eta maskulinitateak lantzea. |
| **HE. 8**<br>**Emakumeen* autonomia ekonomikoa.** |
| HO.8.1.<br>Emakumeen lan-egoerak hobetzeko baliabideak ahalbidetu. |
| HO.8.2.<br>Enpresei eta erakundeei laguntzea berdintasuna txertatu dezaten beren kulturan, estrategian eta kudeaketa ereduan (soldata arrakala, erantzunkidetasuna ...) |
| **HE. 9**<br>**Zaintza lanen ekonomia feminista.** |
| HO.9.1.<br>Zaintza eta kontziliazio beharrak identifikatu, eta informazio zein hornidura baliabideak txertatzea. |
| HO.9.2.<br>Zaintza erdigunean jarriko duen hirigintza eredua. |

Guztira 25 ekintza

Eta azkenik, **emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak arloko** helburu estrategikoak eta operatiboak:

| |
|---|
| **HE. 10**<br>**Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko, sentsibilizazio, prebentzio eta formakuntza alorretan aurrera egitea.** |
| HO.10.1.<br>Indarkeria matxistaren aurrean Udalak jarrera irmoa erakustea. |
| HO.10.2.<br>Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazio, formakuntza eta prebentzio ekintzak antolatzea herritarrentzat. |
| HO.10.3.<br>LGBTIQA+biztanleriaren diskriminazioaren aurkako ekimenak martxan jartzea. |
| **HE. 11**<br>**Udalaren arreta emateko eredua emakumeen eta nesken ahalduntzeari zuzenduta; Biktimen kalteak banan-banan erreparatzeko eskubidea indartu.** |
| HO.11.1.<br>Baliabideak eskaintzea eta baldintzak jartzea erreparazioa integrala izan dadin. |

Guztira 16 ekintza

## 7. EKINTZA-PLANA

Ondorengo taulatan Zarauzko Emakume eta Gizonen Parekidetasunerako IV. Planean proposatzen diren helburu orokorrak eta helburu estrategikoak betetzeko aurreikusten diren ekintzak ageri dira. Era berean, ekintza hauek aurrera eramateko ardura izango duten Udal eragileak eta exekuzio-aldia ere ageri dira.

**GOBERNU ONA**

GO.HE.1. Konpromiso politikoa: Parekidetasun arloan erreferentziazko araudiaren garapena sustatzea.

GO.HO.1.1. Udalarentzat parekidetasunaren arloan erreferentziazko araudia berrikustea, eguneratzea eta ezarpenaren jarraipena egitea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 | 2027 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GO.1.1.1. Udal ordenantza berrikustea eta eguneratzea emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen erreformarekin bat egin dezan, erakundeari dakarzkion aldaketak identifikatuz eta honen jarraipenerako eta ebaluaziorako baliabideak ezarriz. | Parekidetasun Departamentua<br>Kolaboratzaileak:<br>Udal Gobernua<br>Giza Baliabideen Departamentua<br>Idazkaritza Departamentua<br>Kontratazioa | | | | | |
| GO.1.1.2. Baliabideak eskaintzea eta mekanismoak egokitzea onartutako xedapenak, jarraibideak eta estrategiak garatu ahal izateko. | Udal Gobernua | | | | | |
| GO.1.1.3. Udalak egiten dituen agerraldietan, ordezkaritza parekidea bermatzea. | Udal Gobernua | | | | | |
| GO.1.1.4. Enpleguaren eskaintza eta oposaketetan genero ikuspegia eta parekidetasun gaiak berrikustea eta eguneratzea. | Parekidetasun Departamentua Giza Baliabideen Departamentua | | | | | |
| GO.1.1.5. Politikariei zuzendutako prestakuntza-ekintzak diseinatzea eta ezartzea, Parekidetasun Departamentuarekin koordinatuta. Ekintza horietan, eduki hauek jasoko dira: berdintasunerako oinarrizko prestakuntza, genero ikuspegia eta komunikazio ez sexista eta inklusiboa, beren sailetako urteko plan operatiboak ezartzeko prestakuntza espezifikoa. | Parekidetasun Departamentua Giza Baliabideen Departamentua | | | | | |
| GO.1.1.6. Udal araudi eta ordenantzak, aldatzen direnean edo berriak egiten direnean genero ikuspegia txertatzea. | Departamentu guztiak | | | | | |
| GO.1.1.7. Udaleko Plan berrietan eta daudenetan (agenda 21, euskara, berdintasuna, turismo…) genero ikuspegia txertatzea. | Planak dituzten Departamentuak | | | | | |

| GOBERNU ONA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GO.HE.1. Konpromiso politikoa: Parekidetasun arloan erreferentziazko araudiaren garapena sustatzea. | | | | | | |
| GO.HO.1.2. Parekidetasun Departamentua indartzea. | | | | | | |
| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
| GO.1.2.1. Parekidetasun departamentuaren beharrak urtero aztertzea eta, hala badagokio, eguneratzea, bere eginkizunak betetzeko egitura egokia izan dezaten. | Parekidetasun Departamentua Giza Baliabideak Departamentua | | | | | |

| GOBERNU ONA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GO.HE.2. Lan prozeduretan genero ikuspegia txertatzeko aurrera pausoak egiten jarraitzea: *Mainstreaming*, klausulak, aurrekontuak, inpaktu txostenak, sexu aldagaia. | | | | | | |
| GO.HO.2.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundean **sexu aldagaia** sistematikoki txertatu eta aztertzea, pertsonei zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea. | | | | | | |
| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
| GO.2.1.1. Emakume, gizon eta ez bitarren kategoriari dagokionez ikerketa, aplikazio informatikoetan, estatistiketan, formularioetan, gidetan eta bestelako Udal dokumentuetan generoaren arabera bereizitako datuak biltzen jasotzen jarraitzea (Berdintasunerako Legean xedatutakoaren arabera). | Departamentu guztiak | | | | | |
| GO.2.1.2. Biltzen diren datuei buruz hausnartzea, esku hartzeko eremuetan emakumeek, gizonek eta bitarrak ez diren pertsonek dituzten egoera,baldintza, jomuga eta beharrizan desberdinak ezagutzeko. | Departamentu guztiak | | | | | |
| GO.HO.2.2. Udalaren araudi, plan eta proiektu estrategikoek duten **genero-inpaktua** neurtzeko prozedura landu eta onartzea. | | | | | | |
| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
| GO.2.2.1. Legeak agintzen duen bezala, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostenak osatzea udal araudi, plan edota proiektua estrategikoetan. | Departamentu guztiak | | | | | |

| GOBERNU ONA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GO.HE.2. Lan prozeduretan genero ikuspegia txertatzeko aurrera pausoak egiten jarraitzea: *Mainstreaming*, klausulak, aurrekontuak, inpaktu txostenak, sexu aldagaia. | | | | | | |
| GO. HO. 2.3. Udalak zuzenean egiten dituen edo hirugarren pertsonen edo entitateen bidez udalarentzat egiten diren dokumentuetan eta euskarrietan **komunikazio ez sexistaren** (hizkuntza, irudietan, sinboloetan etab.)erabilera bermatzea. | | | | | | |
| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
| GO.2.3.1. Udal departamentu bakoitzak Udaleko web orria berrikustea, komunikazioaren eta irudien erabilera ez-sexista eta barneratzailea bermatzeko, informazio idatzi, ikonografiko osoan eta intersekzionalitatea barne hartuta, informatikako departamentuak aldaketak aplika ditzan. | Departamentu guztiak | | | | | |
| GO.HO.2.4. Udalaren kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan **berdintasun klausulak sistematikoki txertatzen jarraitzea,** haien gaineko jarraipena egitea eta betetze maila bermatzea, eraldatzeko duten ahalmena aztertuz (kalitatea eta eragina). | | | | | | |
| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
| GO.2.4.1. Sail bakoitzeko kontratazioetan berdintasun-irizpideak txertatzen jarraitzea eta hauen jarraipena bermatzea (kontratatutako enpresek emakumeen presentzia, berdintasun-planak eta kontziliazio neurriak etab. dituztela ziurtatuz)<br><br>*Kontratuaren arduradunak aurkeztu den dokumentazioa egiaztatu beharko du, eta ebaluatu behar du ea egokia den eta bat datorren adjudikazio-irizpideekin. | Departamentu guztiak | | | | | |
| GO.2.4.2.Oinarrizko klausula bereziak eta kontratu mota ezberdinetarako irizpideak berrikusi eta eguneratu berariazko lantalde tekniko baten bidez, kontratazio klausulen jarraipena egiteko. Hausnarketa eremua baliatu kontratu txikien berdintasun inpaktua aztertzeko eta neurriak hartzeko. | Parekidetasun Departamentua<br><br>Kolaboratzaileak:<br>Udal Gobernua<br>Giza Baliabideen Departamentua<br>Idazkaritza Departamentua<br>Kontratazioa | | | | | |

| GOBERNU ONA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GO.HE.2. Lan prozeduretan genero ikuspegia txertatzeko aurrera pausoak egiten jarraitzea: *Mainstreaming*, klausulak, aurrekontuak, inpaktu txostenak, sexu aldagaia. | | | | | | |
| GO.HO.2.5. Udalaren aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea. | | | | | | |
| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
| GO.2.5.1.Genero-ikuspegia duten aurrekontu publikoei buruzko prestakuntza, udalean erantzukizun politikoa duten pertsonei, zuzendariei eta inplikatutako teknikariei zuzendua. | Parekidetasun Departamentua<br>Giza baliabideak | | | | | |
| GO.2.5.2. Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeari buruzko lanketaosatzea udal departamentuekin. Adibidez, 2026ko hainbat Departamentuen interes bereziko aurrekontu-partiden genero-eragina aztertzen. | Parekidetasun Departamentua<br>Kontu-hartzailetza Departamentua | | | | | |

| GOBERNU ONA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GO.HE.3. Udala parekidetasunaren ereduzko erakundea. | | | | | | |
| GO.HO.3.1. Udaleko langileen kudeaketan genero-ikuspegia txertatzeko **udalaren barne-plana** egin. | | | | | | |
| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
| GO.3.1.1.Parekidetasunerako barne-plana* garatzea, plantillan 50 pertsona baino gehiago dituzten erakundeentzat indarrean dagoen autonomia- erkidegoko eta estatuko araudiari jarraituz.<br><br>*Parekidetasunerako barne-plana udal-langileei zuzenduta egongo da, eta erakundeko emakumeen eta gizonen berdintasun-mailari buruzko diagnostiko xehatua izango du. Berdintasunerako jarduera-plana diagnostikoan jasotako azterketan eta balorazioan hautemandako hobekuntza-arloei erantzuteko neurri zehatzen multzo izango da. | Parekidetasun Departamentua<br>Kolaboratzaileak:<br>Giza Baliabideen DepartamentuaUdal Langileen Batzordea | | | | | |
| GO.3.1.2. Parekidetasun departamentuarekin elkar-lanean, udal-administrazioari atxikitako langileek emakume eta gizonen berdintasunaren arloan zer-nolako trebakuntza-beharrak dituzten aztertzea, eta departamentu bakoitzerako formakuntza plana osatzea. Arloetako politiketan eta administrazio prozedura arruntetan genero ikuspegia progresiboki inplementatu ahal izan dezaten (formakuntza espezifikoekin). | Parekidetasun Departamentua<br>Kolaboratzaileak:<br>Giza Baliabideen Departamentua | | Formakuntza Plana | Urtero formazioak | Urtero formazioak | Urtero formazioak |
| GO.3.1.3. Udalean sartzen diren langileentzako harrera-planaren baitan parekidetasunerako barne-planari buruzko informazioa barneratu plantilla osora iristen dela bermatuz. | Giza baliabideen Departamentua | | | | | |
| GO.3.1.4.Sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako udalarenarreta protokoloa berrikustea, eguneratzea eta komunikatzea Parekidetasun departamentu eta langileen ordezkaritzarekin elkarlanean. | Parekidetasun Departamentua<br>Kolaboratzaileak:<br>Giza Baliabideen DepartamentuaUdal Langileen Batzordea | | | | | |

| GOBERNU ONA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GO.HE.4. **Koordinazioa eta elkarlana**: koordinazioa eta lankidetza funtsezko elementua da berdintasuna zeharka landu dadin maila eta arlo guztietan. | | | | | | |
| GO.HO.4.1. Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea. | | | | | | |
| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
| GO.4.1.1. Parekidetasun Departamentutik, urtean bilera bat egitea Departamentu bakoitzeko arduradunekin; urteko ekintza plana berrikusi eta ebaluazioa osatzeko. | Parekidetasun Departamentua<br>Kolaboratzaileak:<br>Udal Departamentu guztiak | | | | | |
| GO.4.1.2. Urte hasieran, Herritar Batzorde Informatiboaren bitartez, planaren inguruko jarraipen eta betetze mailaren inguruko informazioa ematea. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| GO.4.1.3.Urte amaieran, Udal departamentu bakoitzak urteko ekintza planean ezarritako ekintzen betetze mailaren jarraipena eta ebaluazioa kualitatiboa osatzea, helburu honetarako diseinatutako jarraipen-tresna erabilita (Excela) | Udal Departamentu guztiak | | | | | |
| GO.4.1.4. Behin indarraldia bukatuta Parekidetasun planaren eraginaebaluatzea eta inpaktua neurtzeko diagnostikoa osatzea, Zarauzko Udaleko hurrengo Plana diseinatze aldera. | Parekidetasun Departamentua<br>Kolaboratzaileak:<br>Udal Departamentu guztiak | | | | | |

| EMAKUMEEN AHALDUNTZEA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EA.HE.5. Emakumeen ahalduntze pertsonal eta kolektiborako baliabideak eta zerbitzuak bermatzea. | | | | | | |
| EA.HO.5.1. Emakumeen*Etxearen proiektua herrian indartu eta egonkortu. | | | | | | |
| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
| EA.5.1.1. Emakumeen*Etxeen lurralde mailako eredu propio bat garatzearen aldeko apustua egin aldera, beste herrietako Etxeekin hausnarketa eta praktika onak partekatzea (eginkizunak eta helburuak, lurralde aniztasuna, udalekiko harremana, etab.). | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| EA.5.1.2. Emakumeen*Etxeko Aholkularitza zerbitzuak indartzeko etaherritarren artean ezagutarazteko ekimenak egitea. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| EA.5.1.3. Emakumeen* Etxearen dinamizazioa eta gestioa aurreraeramateko Parekidetasun Departamentuaren baliabideak areagotzea. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| EA.5.1.4. Emakumeen* etxeak antolatzen dituen ekintzak, Jabetze Eskolako programazioa, zerbitzuak eta jarduerak indartzea eta areagotzea. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| EA.5.1.5. Emakumeen*Etxea herriko neska gazteei hurbiltzea haientzatbideraturiko ekimenak antolatuz. | Parekidetasun Departamentua<br>Kolaboratzaileak:<br>Gazteria Departamentua | | | | | |

| EMAKUMEEN AHALDUNTZEA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EA.HE.5. Emakumeen ahalduntze pertsonal eta kolektiborako baliabideak eta zerbitzuak bermatzea. | | | | | | |
| EA.HO.5.2. Ikuspegi intersekzionala barneratzea, emakumeen ahalduntzea sustatzearen aldeko estrategian. | | | | | | |
| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
| EA.5.2.1. Emakumeen Etxearen*programazio eta ekintzatan ikuspegi Intersekzionala aintzat hartzea honen irismena handitzeko. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| EA.5.2.2. Ahultasun-egoeran dauden emakumeen (herriko emakume adinekoak, emakume arrazializatuak, migratuak, aniztasun funtzionala duten emakumeak…) ahalduntzea sustatzeko neurri espezifikoak hartzea: talde egonkorrak sortzea, zapalkuntza espezifikoak lantzeko saioak antolatzea. | Parekidetasun Departamentua<br><u>Kolaboratzaileak:</u><br>Gizarte Zerbitzuetako Departamentua | | | | | |
| EA.5.2.3. Emakumeen beharrak eta nahiak aztertzea, ikuspegi intersekzionala kontuan izanik, Emakumeen* Etxetik eskaintzen diren etorkizuneko ahalduntze ekimenak egokitzeko. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |

| EMAKUMEEN AHALDUNTZEA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EA.HE.6.Emakumeen ahalduntze sozial eta politikorako laguntza. | | | | | | |
| EA.HO.6.1.Ahalduntze sozial eta politikoa sustatzen duten prozesuak sortzea eta sendotzea. | | | | | | |
| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
| EA.6.1.1. Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira parekidetasunaren eta feminismoaren inguruko aldarrikapen eta sentsibilizazio ekintzak eta programak antolatzen jarraitzea mugimendu feministarekin koordinazioan. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| EA.6.1.2. Zarauzko emakumeak* herriko historian, bizitza kultural, sozial, ekonomiko eta/edo politikoan izandako papera berreskuratzeko eta ezagutarazteko ikerketa beka bat sortzea. | Kultura Departamentua<br>Kolaboratzaileak: Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| EA.6.1.3. Zarauzko emakumeak* herriko historian izandako papera berreskuratzeko ikerketa bekaren bitartez lortutako emaitza sozializatzeko ekintzak osatzea. | Kultura Departamentua<br>Kolaboratzaileak: Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| EA.6.1.4. Udalaren aitortza publikoko sari, lehiaketa, omenaldi eta beste ekitaldi guztietan generoaren araberako presentzia orekatua bermatzea, kontuan izanik herriko emakumeen aniztasuna. | Kultura, Euskara, Hezkuntza, Gazteria, Jaiak eta Ekitaldiak, Turismoa, Liburutegia, Kirola Partaidetza,Hirigintza eta, Ingurumena, Parekidetasun Departamentuak | | | | | |
| EA.6.1.5. Herriko kultur, kirol, euskara, giza eskubide eta abarren, mugimendu, talde, klub eta elkarteetako erantzukizun eta ordezkaritza karguetan generoaren araberako ordezkaritza parekatua izateasustatzea. | Kultura, Euskara, Hezkuntza, Gazteria, Jaiak eta Ekitaldiak, Turismoa, Liburutegia, Kirola, Partaidetza, Hirigintza eta Ingurumena, Parekidetasun Departamentuak | | | | | |
| EA.6.1.6. Antolatzen diren programazio, ekitaldi, omenaldi eta abarretan ikuspegi feminista barneratzen jarraitu aldera azterketa eta hausnarketa osatzea, hala nola, ekitaldien izenak, omendutako pertsonak, jai eta festetako pertsonaiak, erraldoi eta buruhandiak etab.Ondorioztatutakoaren arabera neurri zehatzak osatuz, hobekuntzak burutzeko. | Kultura, Euskara, Hezkuntza, Gazteria, Jaiak eta Ekitaldiak, Turismoa, Liburutegia, Kirola, Partaidetza, Hirigintza eta Ingurumena, Parekidetasun, Departamentuak | | | | | |

| EMAKUMEEN AHALDUNTZEA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EA.HE.6. Emakumeen ahalduntze sozial eta politikorako laguntza. | | | | | | |
| EA.HO.6.2. Emakumeen protagonismoa sustatzea kultur ekitaldi eta proposamen guztietan (artistikoak, jai girokoak, oroitzapenezkoak, kirol arlokoak eta euskararen hizkuntzan normalizazioaren esparruan egiten direnak). | | | | | | |
| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
| EA.6.2.1. Ezarritako rol eta estereotipoak ezabatzera bideratutako ekintzaksustatzen jarraitzea (ipuin kontalarien bidez, antzerkien bidez, literatur solasaldien bidez, argitaratzen diren esku-orrien hizkuntza eta irudiak zainduz,...). | Kultura Departamentua<br>Liburutegiko Departamentua | | | | | |
| EA.6.2.2. Antolatzen diren kultur jarduerak aztertzea genero ikuspegitik,neurri zehatzak osatuz, hobekuntzak burutzeko. | Kultura Departamentua | | | | | |
| EA.6.2.3. Antolatzen diren jai eta ekitaldiak aztertzea genero ikuspegitik,neurri zehatzak osatuz, hobekuntzak burutzeko. | Jaiak eta Ekitaldiak Departamentua | | | | | |
| EA.6.2.4. Turismoaren inguruan antolatzen diren jarduerak aztertzeagenero ikuspegitik, neurri zehatzak osatuz, hobekuntzak burutzeko. | Turismo Departamentua | | | | | |
| EA.6.2.5. Antolatzen diren euskararen aldeko jarduerak aztertzea genero ikuspegitik, neurri zehatzak osatuz, hobekuntzak burutzeko. | Euskara Departamentua | | | | | |
| EA.6.2.6. Partaidetza prozesu guztietan genero ikuspegia kontuan hartzea, emakumeen partaidetza bermatzeko neurri zehatzak osatuz, hobekuntzak burutzeko. | Agenda 21 eta Partaidetza | | | | | |
| EA.6.2.7. Ingurumenari buruz antolatzen diren jarduerak aztertzea genero ikuspegitik, neurri zehatzak osatuz, hobekuntzak burutzeko. | Hirigintza eta Ingurumena Departamentua | | | | | |
| EA.6.2.8. Liburutegiaren erabilpena, antolatzen diren jarduerak, zerbitzuaketa eskaintza aztertzea genero ikuspegitik, neurri zehatzak osatuz, hobekuntzak burutzeko. | Liburutegiko Departamentua | | | | | |

| EMAKUMEEN AHALDUNTZEA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EA.HE.6.Emakumeen ahalduntze sozial eta politikorako laguntza. | | | | | | |
| EA.HO.6.2.Emakumeen protagonismoa sustatzea kultur ekitaldi eta proposamen guztietan (artistikoak, jai girokoak, oroitzapenezkoak, kirol arlokoak eta euskararen hizkuntzan normalizazioaren esparruan egiten direnak). | | | | | | |
| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
| EA.6.2.9. Musika eskolako erabilpena eta eskaintza aztertzea genero ikuspegitik, neurri zehatzak osatuz, hobekuntzak burutzeko. | Kultura Departamentua | | | | | |
| EA.6.2.10. Artezaleak Eskolako erabilpena, antolatzen diren jarduerak eta zerbitzuen eskaintza aztertzea genero ikuspegitik, neurri zehatzak osatuz, hobekuntzak burutzeko. | Kultura Departamentua | | | | | |
| EA.6.2.11. Gaztelekuaren eta ludotekaren erabilpena, antolatzen direnjarduerak eta zerbitzuen eskaintza aztertzea genero ikuspegitik, neurri zehatzak osatuz, hobekuntzak burutzeko. | Gazteria Departamentua | | | | | |
| EA.6.2.12. Euskaltegiaren erabilpena eta eskaintza aztertzea genero ikuspegitik, neurri zehatzak osatuz, hobekuntzak burutzeko. | Euskaltegia Departamentua | | | | | |
| EA.6.2.13. Jubilatuen egoitzen erabilpena, antolatzen diren jarduerak eta zerbitzuen eskaintza aztertzea genero ikuspegitik, neurri zehatzak osatuz, hobekuntzak burutzeko. | Gizarte Zerbitzuak Departamentua | | | | | |
| EA.6.2.14. Udal kirol instalazioak genero ikuspegitik aztertzea ordutegiak, erabilpena, jarduera mota kontuan hartuta. Neurri zehatzak eta hobekuntzak ezartzea hauen erabilera parekidea bermatzeko. | Kirol Departamentua | | | | | |
| EA.6.2.15. Eskola-kirolean genero-eraginaren analisia osatzea eta emaitzen araberako neurri zuzentzaileak hartzea. | Hezkuntza Departamentua<br>Kirol Departamentua | | | | | |
| EA.6.2.16. Emakumeen kirol-jarduera eta emakumeek kirolean duten presentzia ikusarazten eta emakumeen parte-hartzea sustatuko duten ekintzak eta jarduerak diseinatzea eta gauzatzea. | Kirol Departamentua | | | | | |
| EA.6.2.17. Emakume eta neskez osatutako kirol taldeen eta emakume kirolarien praktiken aitortza soziala egiten jarraitzea eta areagotzea. | Kirol Departamentua | | | | | |

| EMAKUMEEN AHALDUNTZEA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EA.HE.6.Emakumeen ahalduntze sozial eta politikorako laguntza. | | | | | | |
| EA.HO.6.2.Emakumeen protagonismoa sustatzea kultur ekitaldi eta proposamen guztietan (artistikoak, jai girokoak, oroitzapenezkoak, kirol arlokoak eta euskararen hizkuntzan normalizazioaren esparruan egiten direnak). | | | | | | |
| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
| EA.6.2.18. Zarautzen antolatzen diren kirol ekitaldi mistoak aitortzea eta babestea, hauek antolatu eta aurrera eramateko beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta materialez hornituz. | Kirol Departamentua | | | | | |
| EA. 6.2.19. Kirol eremu guztietan ordutegi, sari eta baliabideetan aukera berdintasuna bermatzea. | Kirol Departamentua Turismo Departamentua | | | | | |

**EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO**

EK.HE.7. Berdintasuna gizarte eta ekonomia eraldatzea beharrezko balioa dela aitortzea.

EK.HO.7.1. Herritartasun-eskubideen erabilera sustatzea hezkidetzaren bidez.

| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EK.7.1.1. Herriko ikastetxeen bitartez garatzen den hezkidetza proiektuarekin jarraitzea, modu integralean hezkuntza komunitate osoa barneratuz. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| EK.7.1.2. Hezkidetza Foroaren bitartez antolatzen diren lanketak kaleratzenjarraitzea egun zehatzetan, hala nola, Martxoak 8, Maiatzak 17 edo Azaroak 25 besteak beste. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| Ek.7.1.3. Sexu Aholkularitza Zerbitzuarekin jarraitzea eta herritarren artean ezagutzera emateko kanpainak osatzea. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| EK.7.1.4. Sexu Aholkularitza Zerbitzua eta gizarte eragile ezberdinen arteko koordinazioa areagotzeko neurriak hartzea. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| EK.7.1.5. Sexu Aholkularitza Zerbitzuak kudeatzen dituen sare sozial eta onlinekanalen bidez egiten diren prebentzio eta sentsibilizazio lanak osatzen jarraitzea. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| EK.7.1.6. *Tratu Onen mapa** sortzeko lanketa martxan jartzea herriko gazteen parte hartzea bultzatuz.<br><br>* Herriko pertsona eta eragile sozialen artean ematen diren tratu onen praktikak identifikatu eta balioan jartzen duen ekimena; sarea bultzatuz eta herria pausoz-pausoTratu Onen Kulturan murgilduz. | Parekidetasun Departamentua<br><u>Kolaboratzaileak:</u><br>Gazteria Departamentua<br>Hezkuntza departamentua<br>Gizarte Zerbitzuak zerbitzua<br>Agenda21 eta Partaidetza Departamentua | | | | | |
| EK.7.1.7. Udal-arloek adingabeei zuzenduta programatutako jarduera eta zerbitzu guztien baldintza-agirietan (egiten diren kontratuetan),berdintasunean, hezkidetzan eta jarrera sexisten prebentzio eta hautemateari buruzko formakuntza minimoa eskatzea betekizunen artean. | Parekidetasun Departamentua<br>Gizarte Zerbitzuak<br>Gazteria Departamentua<br>Hezkuntza Departamentua | | | | | |
| EK.7.1.8. Herriko ikastetxeak suspertzea eta laguntzea jolas-patioen azterketagenero-ikuspegitik osa dezaten, emaitzak kontuan hartuta neurri zuzentzaileak hartuz. | Hezkuntza Departamentua | | | | | |

**EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO**

EK.HE.7. Berdintasuna gizarte eta ekonomia eraldatzea beharrezko balioa dela aitortzea.

EK.HO.7.2. Gizonekin erantzunkidetasuna eta maskulinitateak lantzea.

| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EK.7.2.1. Gizonentzako formazio eta sentsibilizazio kanpainak martxan jartzea, maskulinitateei, aitatasun arduratsuari eta erantzunkidetasunari buruz aritu daitezen. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| EK.7.2.2. Gizonak beraien artean saretu eta gizon taldeak sortzera bideratutako formakuntza espezifikoak osatzea, gizonak biltzen diren talde, elkarte, klub, mugimendu etab. hauetan parte hartzera gonbidatuz. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| EK.7.2.3. Gizonei zuzendutako parekidetasuna lantzeko saioak antolatzea,gizonak biltzen diren talde, elkarte, klub, mugimendu etab. hauetan parte hartzera gonbidatuz. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |

| EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EK.HE.8. Emakumeen*autonomia ekonomikoa. | | | | | | |
| EK.HO.8.1. Emakumeen lan-egoerak hobetzeko baliabideak ahalbidetu. | | | | | | |
| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
| EK.8.1.1. Emakumeen ezkutuko talentuak ikusgarri bihurtzeko ekimenakmartxan jartzea. | Parekidetasun Departamentua | | X | | X | |
| EK.8.1.2. Herriko Lanbide Heziketako eskaintzan genero-irizpidea barneratzeko sentsibilizazio ekintzak osatzea. Tradizionalki maskulinotzat jo diren lanbideetara emakumeak erakarriz, eta alderantziz. | Hezkuntza departamentua Parekidetasun Departamentua | | X | | X | |
| EK.8.1.3. Herriko emakume ekintzaileak eta beraien proiektuak ikusaraztekoekimenak martxan jartzea. | Parekidetasun Departamentua | | X | | X | |
| EK.8.1.4. Tituluak eta esperientziak homologatzeko aholkularitza baliabideak eskaintzen jarraitzea. | Gizarte Zerbitzuak Departamentua Parekidetasun Departamentua | X | X | X | X | X |
| EK.8.1.5. Herritarren artean trebetasun trukaketa osatzeko eta aukeraekonomiko-sozial berritzaileak eraikitzeko espazioak sortzea (Denboraren Bankua). | Parekidetasun Departamentua | | X | X | X | X |

| EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EK.HE.8. Emakumeen*autonomia ekonomikoa. | | | | | | |
| EK.HO.8.2.Enpresei eta erakundeei laguntzea berdintasuna txertatu dezaten beren, kulturan, estrategian eta kudeaketa ereduan (soldata arrakala, erantzunkidetasuna…). | | | | | | |
| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
| EK.8.2.1. Udal mailan parekidetasuna sustatze aldera ahaleginak eta jarduerakegiten dituzten erakunde eta enpresei aitortza egiteko Zarautzen emakumeeneta gizonen berdintasunarekin konprometitutako erakundearen udal- ziurtagiria ezartzea, ziurtagiria lortzeko baldintzak, irizpideak eta sentsibilizazio ekintzak bilduko dituen programa eratuz. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| EK.8.2.2. Parekidetasunaren alde lan egiten duten Zarauzko enpresa eta erakundeen ziurtagiria ezagutzera emateko kanpaina bat osatzea. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |

**EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO**

EK.HE.9. Zaintza lanen ekonomia feminista.

EK.HO.9.1.Zaintza eta kontziliazio beharrak identifikatu eta informazio, zein, hornidura baliabideak txertatzea.

| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EK.9.1.1. Zarautzen menpekotasun egoeran dauden pertsonen zainketen diagnostikoa osatzea, herrian dauden zaintza premiak, zainketa horniduraren ezaugarriak, zainketa lanetan diharduten pertsonen egoera, etab. jasoz ikuspegi intersekzionaletik. Ondoren beharrezkoak diren neurrien ezarpena bultzatzea. | Gizarte Zerbitzuak Departamentua | | | | | |
| EK.9.1.2. Zainketen diagnostikoa osatu ondoren, ludoteka edo eguneko zentroa bezalako ekipamenduetan eskaintzen den zerbitzuari buruz hausnartzea. Hausnarketa horretan oinarrituta hobekuntzak proposatzea, esate baterako, ordutegiak zabaltzea, langileen kopurua handitzea, zerbitzua malgutzea... | Gazteria Departamentua<br>Gizarte Zerbitzuak Departamentua | | | | | |
| EK.9.1.3. Emakume zaintzaileentzako laguntza eta elkartze-sareak sustatzenjarraitzea. | Gizarte Zerbitzuak Departamentua<br>Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| EK.9.1.4. Zaintza eta etxeko langileen eskubideei buruzko informazio eta aholkularitza ekintzak antolatzea, Udaleko Aholkularitza Juridiko Zerbitzuaren bitartez. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |

**EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO**

EK.HE.9. Zaintza lanen ekonomia feminista.

EK.HO.9.2.Zaintza erdigunean jarriko duen hirigintza eredua.

| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EK.9.2.1. Genero ikuspegitik udalerriko herri diagnostikoa egitea(emakumeen segurtasun ezaren ikuspegia, puntu beltzak, irisgarritasuna, mugikortasuna, kontziliazioa errazteko guneak eta baliabideak, etxebizitza,ekipamendu publikoak, kale, plaza, parke, eskultura, ekipamendu eta abarren izendegiaren azterketa…) | Parekidetasun Departamentua<br>Kolaboratzaileak: Mugikortasun DepartamentuaKultura Departamentua Hirigintza eta Ingurumena Departamentua<br>Herrilanak, Azpiegiturak eta Zerbitzuak Departamentua<br>Gizarte Zerbitzuak Departamentua | | | | | |
| EK.9.2.2. Diagnostikoaren emaitzen arabera, detektatutako arazoak edogabeziak konpontzeko baliabideak jartzea. | Parekidetasun Departamentua<br>Mugikortasun Departamentua<br>Kultura Departamentua Hirigintza eta Ingurumena Departamentua<br>Herrilanak, Azpiegiturak eta Zerbitzuak Departamentua<br>Gizarte Zerbitzuak Departamentua | | | | | |
| EK.9.2.3. Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egitea, hirigintzafeministan adituak diren taldeen aholkularitzarekin, Plan orokorra berrikusi edo aldatzen denean (HAPOa). | Hirigintza eta Ingurumena Departamentua | | | | | |

## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

I.HE.10. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko, sentsibilizazio, prebentzio eta formakuntza alorretan aurrera egitea

I.HO.10.1.Indarkeria matxistaren aurrean Udalak jarrera irmoa erakustea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 | 2027 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I.10.1.1. Indarkeria matxistaren aurrean jendaurreko erantzuna emateko protokoloa osatzea. | Udalbatza<br>Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| I.10.1.2.Tratu txarrak eta genero indarkeria jasan duten emakumeei lagundueta arreta emateko jardute-protokoloa berrikustea, eguneratzea eta zabaltzea. | Parekidetasun Departamentua<br><u>Kolaboratzaileak:</u><br>Gizarte Zerbitzuak Departamentua<br>Herri Segurtasuna Departamentua | | | | | |
| I.10.1.3. Indarkeria matxistarik gabeko jai eta kultur espazioak lortzeko bideanaurrera egiteko udalerri prozesua martxan jartzea. | Parekidetasun Departamentua<br><u>Kolaboratzaileak:</u><br>Jaiak eta Ekitaldiak DepartamentuaKultura Departamentua<br>Turismo Departamentua | | | | | |
| I.10.1.4. Sentsibilizazio eta formakuntza ekintzak antolatu jai eta kultur espazioen antolaketan diharduten eragile ezberdin eta tabernariei zuzenduak, indarkeria matxistarik gabeko jai parekideak antolatu eta kudeatzera bideratuak. | Jaiak eta Ekitaldiak DepartamentuaKultura Departamentua | | | | | |
| I.10.1.5. Jai eta kultur espazioetan (kultura ekitaldi bakoitzaren ezaugarri propioari arreta jarriz, adibidez, jaialdiak, makro-kontzertuak…) indarkeria matxistaren prebentzio, sentsibilizazio eta esku-hartzera bideratutako iniziatibak eta kanpainak kaleratzea. | Jaiak eta Ekitaldiak DepartamentuaKultura Departamentua | | | | | |
| I.10.1.6. Kirol jardueran eta kirol instalazioetan sexu jazarpenak eta abusuak prebenitzeko protokoloa osatzea. | Kirol Departamentua | | | | | |
| I.10.1.7. Udalaz gaindiko ekimen eta programetan parte hartzen jarraitzea(adibidez: Beldur Barik programan) | Parekidetasun DepartamentuaGazteria Departamentua<br>Hezkuntza Departamentua | | | | | |

| EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I.HE.10. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko, sentsibilizazio, prebentzio eta formakuntza alorretan aurrera egitea. | | | | | | |
| I.HO.10.2. Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazio, formakuntza eta prebentzio ekintzak antolatzea herritarrentzat. | | | | | | |
| **EKINTZAK** | **ARDURADUNA** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
| I.10.2.1. Urte osoan eta bereziki Azaroak 25ean indarkeria matxistaren prebentzio eta sentsibilizazio kanpainak eta ekintzak diseinatzen jarraitzea. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| I.10.2.2. Autodefentsa feministako saioak antolatzen jarraitzea eremu ezberdinetan emakumeen aniztasuna kontuan hartuz. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| I.10.2.3. Gizonezkoak feminismoan sentsibilizatzeko jarduerak antolatzeafeminismora erakartzeko; eta indarkeria matxistaren kontra modu aktiboan parte hartu dezaten. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| I.HO.10.3. LGTBIQ+biztanleriaren diskriminazioaren aurkako ekimenak martxan jartzea. | | | | | | |
| EKINTZAK | ARDURADUNA | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **2027** |
| I.10.3.1. LGTBIQ+ biztanleriaren errealitateei buruzko diagnostikoa osatzea etasexuetageneroaniztasunarenarlokolehentasunezkojarduerakadostu eta neurriak martxan jartzea. | Parekidetasun Departamentua<br>Kolaboratzaileak:<br>Agenda21 eta Partaidetza Departamentua<br>Gazteria Departamentua<br>Hezkuntza Departamentua | | | | | |
| I.10.3.2. Maiatzak 17 edo Ekainak 28 bezalako egunetan Udaletik aldarrikapen eta sentsibilizazio ekintzak antolatzen jarraitzea. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |

## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

I.HE.11. Udalaren arreta emateko eredua emakumeen eta nesken ahalduntzeari zuzenduta; Biktimen kalteak banan-banan erreparatzeko eskubidea indartu.

I.HO.11.1. Baliabideak eskaintzea eta baldintzak jartzea erreparazioa integrala izan dadin.

| EKINTZAK | ARDURADUNA | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 | 2027 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| I.11.1.1. Udal mailan indarkeria matxista jasan duten emakumeei eta haienmenpe dauden pertsonei zuzendutako arreta, baliabide eta zerbitzuei buruzko hausnarketa osatzea norberaren ahalduntze prozesuan oinarritutako esku- hartzearen ikuspegitik. | Parekidetasun Departamentua<br>Gizarte Zerbitzuak Departamentua<br>Herri Segurtasuna Departamentua | | | | | |
| I.11.1.2. Ondoren, aurkitutako arazo eta gabeziei irtenbidea ematekobaliabideak jartzea. | Parekidetasun Departamentua<br>Gizarte Zerbitzuak Departamentua<br>Herri Segurtasuna Departamentua | | | | | |
| I.11.1.3. Indarkeria matxista jasan duten emakumeei zuzendutako aitortza eta ahalduntze guneak sortzea, gizarte eraldaketa eta udal politiketan eragile izan daitezen. | Parekidetasun Departamentua | | | | | |
| I.11.1.4. Indarkeria matxistari aurre egiteko Udalak eta gainerako erakundeekdituzten bitarteko eta baliabideen berri ematen jarraitzea ikuspegi intersekzionala kontuan izanik. | Parekidetasun Departamentua<br>Gizarte Zerbitzuak Departamentua | | | | | |

## 8. KUDEAKETA ETA PARTE HARTZE EGITURAK

Zarauzko IV Parekidetasun Plana martxan jartzeko eta garapen egokia ziurtatzeko beharrezkoa da koordinazio egiturak zeintzuk izango diren zehaztea. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzen 4/2005 Legearen 3. artikuluko printzipio orokorrei jarraituz: "Euskal herri-aginteek, politikapublikoen garapenean, talde feministen eta emakume-taldeen, gizarte-eragileen eta herritar guztien parte-hartzea eta solaskidetza bultzatu behar dute, haien ekarpenei zilegitasun handiagoa emango dien eta ekarpen horiek benetako eragina izango duten partaidetza- eredu demokratikoago bat bultzatzeko. Horretarako parte hartzeko espazio eta bide egokiak egokitu edo sortuko dituzte, irisgarritasun unibertsala bermatzeko".

Era berean, zeharkakotasuna izango da Planaren beste printzipiotako bat. Hau honela, Departamentu bakoitzeko arduradunek beraien lan eremuan edo alorrean aurrera eramango diren ekintzak eta politikak koordinatzeko eta jarraipena osatzeko funtzioa dute.

Proposatzen diren egiturak honako hauek dira:

### Parekidetasun Departamentua

Parekidetasun Departamentua zeharkako organoa da, eta jarduteko bere eremu esklusiboa emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal mailako politikak bermatzea da. Zerbitzu egonkorra, etengabea eta irauteko asmoarekin sortutakoa. Parekidetasun Departamentuan lanean ari diren pertsonek 4/2005 legearen 17. artikuluan adierazten diren prestakuntza eta esperientzia baldintzak betetzen dituzte.

Parekidetasun Departamentuak bultzatuko du Parekidetasunerako Plan berria, eta bere gain joango da Plan horren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

**OSAERA**

Parekidetasun teknikaria eta parekidetasun zinegotzia.

**FUNTZIOAK**

- Planaren testuinguruan aurrera eramango diren ekintzak bultzatzea eta koordinatzea,Planak koherentzia izan dezan.
- Planak eta herritarrek osatutako ekintza eta helburu zehatzak garatzea. Planaren
- garapenean inplikatutako egitura eta eragile guztiak koordinatzea.Helburu eta
- denboraren betetze mailaren jarraipena egitea.
- Salbuespenez eta beharrezkoa izango balitz, neurri zuzentzaileak proposatzea eta neurrihauen ezarpena baloratzea.
- Planaren komunikazioa egitea.
- Berdintasunerako sortutako koordinazio-guneak dinamizatzea eta hauetan parte-hartzea.
- Lortutako onurak mantentzeko beharrezko ardurak zehaztea eta tresnak kudeatzeaPlanaren ebaluazioa egitea.

## Departamentu guztietako arduradun teknikoak eta politikoak

Plana zeharkakotasunaren ikuspegitik garatuko da, hau honela, Departamentu bakoitzeko arduradun teknikoek eta politikoek beraien lan eremuan edo alorrean aurrera eramango diren ekintzak koordinatzeko eta jarraipena osatzeko funtzioa dute. Urtean behin parekidetasun Departamentuko teknikariarekin eta zinegotziarekin bildu eta urteko plan operatiboaren jarraipen eta ebaluazio lanak osatuko dira.

**OSAERA**

- Udal departamentuetako arduradun tekniko eta politiko guztiak.

**FUNTZIOAK**

- Urte hasieran urteko plan operatiboa aztertzea eta ekintzak bideratzeko kronogramaosatzea.
- Planean zehazten diren ekintzak gauzatzeko bitartekoak eta aurrekontua jartzea. Planeanjasotako ekintza guztiak gauzatzea.
- Planeko ekintzen eta helburuen betetze mailaren jarraipena eta ebaluazioa osatzea.
- Departamentuentzako teknikariei zuzendutako prestakuntza saioetan parte hartzea.

## Koordinaziorako egitura politikoa

Herritarren Informazio Batzordeak Planaren betetze-mailaren jarraipena egingo du.

**OSAERA**

- Parekidetasun Zinegotzia.
- Herritarren arloko departamentuetako eta udaleko gainerako alderdietako ordezkaripolitikoak.

**FUNTZIOAK**

- Planeko helburuen betetze-mailaren jarraipena eta kontrol politikoa egitea. Salbuespenez parekidetasun departamentuak proposatutako neurri-zuzentzaileak eta neurri hauen ezarpena baloratzea eta irizpena ematea.
- Departamentu guztietako betetze-maila areagotzeko beharrezko neurriak hartzea.

## Parekidetasun Kontseilua

Zarauzko Emakumeen eta Gizonen Parekidetasunerako udal Kontseilua organo aholkularia, kontsultarakoa, informatzailea eta ekintzen sustatzailea eta behatzailea da, udalerriko bizitza politikoan, kulturalean, ekonomikoan eta sozialean.

**OSAERA**

- Berdintasunaren alde lanean elkarteetako kideak eta norberaren izenean interesa duten emakumeek.
- Parekidetasun teknikaria eta arloko arduradun politikoa.

**FUNTZIOAK**

- Berdintasunaren gaiaren inguruan Udalari aholkua ematea.
- Ekintzak proposatzea parekidetasun departamentuarekin elkarlanean. Berdintasunarenalde lan egiten duten eta lan egiteko prest dauden elkarteen arteko elkarlana bultzatzea. Iritzia eta analisirako
- gaitasuna sortzea eta hausnarketarako espazioa izatea.

## Emakumeen mahaia

Zarauzko Emakumeen Mahaia Emakumeen* Etxearen jardueran parte hartzen duen organo aholku-emailea eta ekintzen sustatzailea da. Emakumeen* Etxeko programei buruzko proposamenak eta iradokizunak egiteko organoa da.

**OSAERA**

- Emakumeen* etxeko kidea den interesa duen edozein emakumeEmakumeen*
- etxeko dinamizatzailea
- Parekidetasun teknikaria eta arloko arduradun politikoa

**FUNTZIOAK**

- Berdintasunaren gaiaren inguruan aholkua ematea. Emakumeen* etxean ekintzakproposatzea.
- Berdintasunaren alde lan egiten duten eta lan egiteko prest dauden elkarteen artekoelkarlana bultzatzea.
- Iritzia eta analisirako gaitasuna sortzea eta hausnarketarako espazioa izatea.

## Erakundeen arteko koordinazio egiturak

Zarauzko Udala Berdinsarea, Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako euskal udalerrien sarearen parte da. Sareak helburutzat du berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka udal programak eta zerbitzuak bultzatzea, indartzea, koordinatzea eta ebaluatzea. Berdinsarearen bitartez sarean lan eginda tokiko gobernuek arlo horretan erantzuteko eraginkortasuna hobetzea da asmoa, erakunde horien eta beste batzuen arteko lotura moduan balio izan dezan.

### OSAERA

- EAEko 77 udalerrik parte hartzen dute Berdinsarean

## 8.1.EBALUAZIO ETA JARRAIPEN SISTEMAK

2023-2027 epealdirako Parekidetasun Plana, urteko plan operatiboen bitartez landuko da.

Urte bakoitzaren hasieran Udal Departamentu bakoitzak urteko ekintza planaren jarduerak aztertu eta planifikatuko ditu, baita hauek aurrera eramateko bitartekoak eta aurrekontua jarri ere. Departamentu bakoitzak ekintzen jarraipena osatu eta urte amaieran betetze mailaren ebaluazio kuantitatiboa osatuko du, helburu honekin diseinatu den lan tresnaren bitartez. Bestalde, urteko ekintza planaren ebaluazio kualitatiboa ere txostenbatean jasoko du.

Urte hasieran, parekidetasun teknikaria eta zinegotzia sail bakoitzeko arduradunekin bilduko dira, aurreko ekintza-planaren ebaluazioa eta betetze-maila aztertzeko eta urteko ekintza-plana planifikatzen laguntzeko.

Bildutako datu guztiekin, 2027an amaierako ebaluazio bat egingo da, aurrez ezarritako helburuak lortu diren jakiteko eta plan berriak planifikatzeko.

Honela beraz, Zarauzko Emakume eta Gizonen IV. Parekidetasunerako Planak hiru ebaluazio maila izango ditu:

1. **Betetze mailaren ebaluazioa:** helburua Planean ezarri diren ekintzetatik aurrera eraman diren ekintzen zenbatekoa aztertzea izango da. Ebaluazio etengabea izango da, Plana indarrean dagoen denboran zehar iraungo du eta amaiera txosten batean jasoko da bertan ateratako informazioa.

2. **Emaitzen ebaluazioa**: Planean ezarri diren helburu operatiboak zenbateraino bete diren baloratzeko, honetarako aurrez adierazleak finkatu direlarik. Urteko ekintza planaren balorazio kualitatiboa non ekintzak betetzeko zailtasunak, gabeziak eta indarguneak jasoko dira. Urtean behin egingo da ebaluazio hau.

3. **Eraginaren ebaluazioa:** ZarauzkoEmakume eta gizonen IV. Parekidetasun Planaren emaitzetan oinarrituko da. Esperodiren emaitza horien bidez Parekidetasun Planak izan duen inpaktua neurtuko da. Helburua eragiten dien taldeen egoeraren aldaketa ikustea izango da. Ebaluazio hau Planaren indarraldia bukatutakoan osatukoda.

### 8.1.1. INPAKTU ADIERAZLEAK

Planari segimendua egin eta honen inpaktua zenbatekoa izan den neurtzen adierazleak zehaztu dira hurrengo taulatan. Modu honetara, betetze-mailaren segimendua egiteaz gain, egindako lanaren inpaktua neurtuko da.

| GOBERNU ONA | |
|---|---|
| GO.HE.1. Konpromiso politikoa: Parekidetasun arloan erreferentziazko araudiaren garapena sustatzea. | |
| GO.HO.1.1. Udalarentzat parekidetasunaren arloan erreferentziazko araudia berrikustea, eguneratzea eta ezarpenaren jarraipena egitea. | |
| **EKINTZAK** | **ADIERAZLEAK** |
| GO.1.1.1. Udal ordenantza berrikustea eta eguneratzea emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen erreformarekin bat egin dezan erakundeari dakarzkion aldaketak identifikatuz eta honen jarraipenerako eta ebaluaziorako baliabideak ezarriz. | -Ordenantzaren azterketa eta berrikusketa osatua da BAI/EZ.<br>-Egindako moldaketa kopurua.<br>-Jarraipen eta ebaluaziorako ezarritako mekanismoak. |
| GO.1.1.2. Baliabideak eskaintzea eta mekanismoak egokitzea onartutakoxedapenak, jarraibideak eta estrategiak garatu ahal izateko. | -Baliabideak txertatu/ mekanismoak egokitu dira BAI/EZ<br>-Ezarritako ba |
| GO.1.1.3.Udalak egiten dituen agerraldietan, ordezkaritza parekidea bermatzea. | -Agerraldi kopurua eta osaera sexuaren arabera. |
| GO.1.1.4.Enpleguaren eskaintza eta oposaketetan genero ikuspegia eta parekidetasun gaiak berrikustea eta eguneratzea. | -Azterketa eta berrikusketa osatu da BAI/EZ.<br>-Egindako moldaketa kopurua. |
| GO.1.1.5. Politikariei zuzendutako prestakuntza-ekintzak diseinatzea eta ezartzea, Parekidetasun Departamentuarekin koordinatuta. Ekintza horietan, eduki hauek jasoko dira: berdintasunerako oinarrizko prestakuntza, genero ikuspegia eta komunikazio ez sexista eta inklusiboa, beren sailetako urteko plan operatiboak ezartzeko prestakuntza espezifikoa. | -Eskainitako formakuntzak.<br>-Parte-hartu duten pertsona kopurua sexuaren arabera.<br>-Formakuntza ordu kopurua. |
| GO.1.1.6. Udal araudi eta ordenantzak, aldatzen direnean edo berriak egitendirenean genero ikuspegia txertatzea. | -Genero ikuspegiaz osatutako Udal araudi, ordenantza etab. kopurua. |
| GO.1.1.7. Udaleko Plan berrietan eta daudenetan (agenda 21, euskara, berdintasuna, turismo…)genero ikuspegia txertatzea. | -Genero ikuspegia txertatu den Plan kopurua. |

| GOBERNU ONA | |
|---|---|
| GO.HE.1. Konpromiso politikoa: Parekidetasun arloan erreferentziazko araudiaren garapena sustatzea. | |
| GO.HO.1.2. Parekidetasun Departamentua indartzea. | |
| **EKINTZAK** | **ADIERAZLEAK** |
| GO.1.2.1. Parekidetasun departamentuaren beharrak urtero aztertzea eta, hala badagokio, eguneratzea, bere eginkizunak betetzeko egitura egokia izan dezaten. | -Aztertu diren beharrak.<br>-Hartutako neurri kopurua. |

| GOBERNU ONA | |
|---|---|
| GO.HE.2. Lan prozeduretan genero ikuspegia txertatzeko aurrera pausoak egiten jarraitzea: *Mainstreaming,* klausulak, aurrekontuak, inpaktu txostenak, sexu aldagaia. | |
